

«Geure burua antolatzeke arauak guk geuk sortu behar ditugu»

Filosofian lizentziaduna eta Soziologian doktore dugu Eduardo Apodaka (Deusto, 1965).

1999. urtetik Psikologia Sozialeko irakaslea da EHUn.

Iaz, Juan Zelaia XI. Saiakeraren Saria eskuratu zuen *Norberaren autonomia krisian lanari esker*. Pamiela argitaletxeak argitaratu berri dio.

| ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN |

Argazkia: Jon Hernaez / Argazki Press

Bilboko aurkezpenean, liburua zure bizitzaren gaineko hausnarketatik jaioa dela esan zenuen.

Esan daiteke hausnarketa edota bidegurutze bat dela. Bide bi, arlo bi nahasten dira nola-bait, edo nik nahastu ditut: batetik, nire jardunean irakurri behar izan ditudan liburuak, eta bestetik, gure bizitzan –kasu honetan nirean– gertatutakoak. Alde horretatik, idatzi dudana asko nire bizimodua eta nire parekoen bizimodua kritikatu osatu dut. Nire buruari egiten diodan kritika ere bada, baina azken finean, bizimodu bat ezartzen digutelako eta neurri batean bat egiten dugulako horrekin. Batez ere pribatizazioaz eta sozializazio ezaz aritu naiz, maila horretako kontzeptuez kritikak, teoriak eta ikerketak irakurtzen ditudanetan nire inguruan gertatzen ari diren gauza asko ikusten ditudalako.

Zer da autonomia zuretzat?

Autonomia bi modutara ulertzen da. Aurkezpenetan esan ohi dut autonomia modan dagoela orain, norbere buruaz bakarrik arduratzearen zentzuan. Nork bere buruaren ardura osoa hartu behar du eta gizartea, jendartea, ingurukoak, harremanak eta gainerakoak ahaztu behar ditu. Garai honetako lelo ideologikoetako bat da hori: zure buruaz ardura zaitez eta ahaztu ingurukoa. Nik beste zentzu batean erabili dut, alderantzizkoan hain zuzen.

Cornellius Castoriadis filosofo frantziarraren obratik hartu nuen kontzeptua –hitza eta gainerakoa–. Autonomia heteronomiaren kontrakoa dela defendatzen zuen hark. Gure bizitza besteren batek arautuko duela pentsa-

tzea da heteronomia, besteren batek aginduko duela. Nork bere bizitza antolatu behar duela defendatzen zuen. Zein zentzutan? Gure legeak, gure arauak eta gure buruaren gobernua gure eskuetan behar ditugu, eta horretan datza Mendebaldeko politika tradizioa.

Herriari boza, eskumena eta boterea bezalako aldarrikapenak egiten direnean esaten zaigu aldarrikapen horien kontra mugituko dena izango dela geure bizitza arautuko edo antolatuko duena. Beti mugitzen baita legeren bat, izan sakratua, naturala edo, gaur gertatzen ari den lez, makroekonomikoa. Tradi-

zio autonomo horretatik jasotzen dena justu kontrakoa da: autonomia da benetan politikaren muina. Geure burua antolatzeke arauak guk geuk sortu behar ditugu; pertsonen arteko eztabaidetan sortu behar dira, eta nork bere burua gobernatu behar du. Baina nor hori ez da gizabanako isolatua, politikarako jaio den jendea baizik.

“Lege abstrakturen baten izenean debekatu nahi izaten zaio beti jendeari mugimendua, aldaketa eta, azken batean, bere bizitzaren ardura”

Liburuaren arabera, jenderik edota kolektiborik gabe autonomia ezinezkoa da, ulertezina. Hau da, kolektibo edo gizarte testuinguruan sortzen da ezinbestean.

Bai. Nik esango nuke norberaren autonomia jendartean sortzen den kapitala dela. Jendarterik ez baduzu, autonomiarik ere ez duzu izango. Ikuspegi kritiko batetik onartu behar ko genuke honakoa: nire egoera gizarte egituraren emaitza da eta alde horretatik handik hartzen dut nik izan dezakedan autonomia. Bestalde, autonomia kolektiboa autonomia indibidual horietatik sortzen da: gure bizitza antolatu nahi baldin badugu, eta lege hetero-



nomoen kontra mugitzen baldin bagara, berdin zait lege hori zer-nolako den (tradiziozkoa, kanpo politika batekoa, ekonomiak ezarritakoa edo jainko batena, esaterako); horren kontra zerbait egin nahi eta mugitzen hasten baldin bagara, orduan, autonomia kolektibo hori handitzen eta areagotzen hasi gara. Kolektibo batzuetan hori debekatu egiten da.

Hemen inguruan, diktadura eta totalitarismo asko dago. Lege abstrakturen baten izenean debekatu nahi izaten zaio beti jendeari mugimendua, aldaketa eta, azken batean, bere bizitzaren ardura.

Duela hogeit bat urte, behin baino gehiagotan entzun genuen jarrera pertsonal guztiak zilegiak direla baina ez politikoak; hots, jarrera batek politikari adina norbanako behar zituen, adostasuna funtsezkoa zen. Intsumisioan nork bere abiapuntua zuen baina denok genuen, aldi berean, xede komun bat.

Zentzu klasiko zaharrean, politika denontzako espazioa sortzea dela esango nuke. Eta, aurrerago, espazio komun hori kudeatzea. Espazio komuna pertsonen arteko botere-gunea da, botere partekatu hori nola antolatuko dugun eztabaidatzeko gunea. Argi dago elkarbizitza horretan eztabaida asko izan direla eta izango direla. Liberalismoan eta postmodernismoan nagusitu zaizgun ikuspegian, espazio komun horretatik kanpo badago zerbait, adibidez pertsonaren, norberaren espazio autonomoa. Nik ez dut horren kontra egin, baina azpimarratu nahi izan dut espazio politikoan ezartzen denak baldintzatzen duela espazio autonomoan,

Liburuaren aurkezpenean, ezker-eskuin: Eduardo Apodaka, Joseba Intxausti Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioko kidea, eta Aingeru Irigarai idazlea.

espazio pertsonalean gertatzen dena, eta alderantziz.

Intsumisioaren kasuan, oso ondo ikusten da hasiera batean arazo pertsonaltzat jotzen genuen hori —soldadu joan behar dut, hau ezbeharra— politizatu egin zela une batean.

“Zergatik joan behar dugu?” esaten hasi ginen, eta kritikak espazio komun hori zabaltzen zuen: “Hau guztioi gertatzen zaigu, baina alda dezakegu, eta aldatu egin behar dugu”. Lehenengo eta behin, kritika batetik abiatu zen. Eta kritika eginez, atzealdean dagoena (armada, Estatu) aldatzeari ekin zitzaion.

Eguno Euskal Herriko egoera politikoaz zer esango zenuke?

Bada, antzeko zerbait. Nik uste dut, Euskal Herrian espazio komun hori definitzen dabilen jendea gaur egun ia-ia alde bateko jendea dela, gehienbat. Eta besteek definitu eta gainera inposatu nahi duten espazio politiko aldebakarra nolabait status quoaren estatusa da eta Estatu bera da. Esaten digute Euskal Herri ez dela eta ezin dela izan, Estaturik ez daukagulako. Baina guk esaten dugu espazio politikoa zabaltzen dela Estatu baino lehenago eta nik uste dut espazio politikoa zabaltzeko gurea aspaldi: Euskal Herria bada politikoki zerbait, eta kasu horretan autonomia da bere buruaren gobernu. Jabetza lortzea espazio politiko komun hori gogortzearekin etorriko da. Alde horretatik, kanpora begiratu beharrean, geure buruari, espazio politiko komun hori begiratu beharko genioke gehienbat. ■

